

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Euskarabidek kudeatzen duen itzulpen-programak 2.600 kontsulta ebatzi zituen 2013an

Zerbitzuak gaztelania/euskara eta euskara/gaztelania administrazio-testuen itzulpenari buruzko tokiko erakundeen zalantzak argitzen ditu.

Lunes, 28 de abril de 2014

[Euskarabidek](#) kudeatzen duen Idazlagun aplikazio informatikoak Nafarroako tokiko erakundeen 2.600 kontsulta ebatzi zituen iaz. Kontsultak testuen eta hitzen zuzentasunari buruzkoak izaten dira, gaztelania/euskara eta euskara/gaztelania administrazio-agirien itzulpena egitean zalantzetatik sortuta.

Euskarabidek zerbitzua eskaintzeko 140 lizentzia ditu esleituta orain arte. Zerbitzuaren eskaria haziz doa, eta aurtengo lehen hiruhilekoan mila kontsulta baino gehiago jaso ditu.

Organismo publikoak, gainera, itzulpengintzan laguntzeko programa bat kudeatzen du, lehenago idatzitako testuak gordetzen dituen datu-base baten bidez itzulpen berriak egiten laguntzeko. 26 tokiko erakundek dute datu-base horretarako sarbidea.

Datu horiek administrazio-testuak euskarara itzultzeko tokiko erakundeentzako laguntza-programaren segimendua egiten duen batzordeak berriki egindako bileran jakinarazi ziren.

Bileran azaldutakoaren arabera, programa horiek etorkizuneko itzulpenetarako laguntza-memoriak sortzeko, babestu beharreko datuak kentzeko, zuzentasun terminologikoaren inguruko kontsultak egiteko, erabiltzaileei telefono bidezko laguntza emateko eta zerbitzari nagusi bat kudeatzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Aurtengo urterako, prestakuntza-saioak egingo direla aurreikusi da, erabiltzaileen mailetara egokituta, bitarteko horiek eskaintzen dituzten aukeren ustiaketa hobetzeko.